


Nafarkaria

Nafarroako gehigarri berezia / Ostirala martxoak 13



Mario Gaviria.

JOXE

Mario Gaviria ekologiatik gizarte lanera

Duela hogeit hamar urte gorria izateko ausardia pixka bat nahitaezkoa zen, baina berdea izateak zerbait gehiago eskatzen zuen: etortzeaz zeuden aldaketak eta joerak somatzeko sena. Horixe zuen Mario Gaviriak. Berak esan ohi duenez, betidanik hamabost urte aurreratua bizi izan da. Aurretik ibiltzeak badu bere ordaina: «Abangoardia beti bakarrik dabil, berezkoa du bakardadea». Orain 54 urte Kortesen jaio, Gaviriak bakarrik ekin zion Tuteran jarri nahi zuten zentral nuklearraren aurkako borro-

kari. Orduz gero mugimendu ekologistak izan du zer esana, baina Gaviriak, 'klorofila ideologiaz' aspertuta, gizarte lanetara jo du azken urteotan. Egun, Iruñeko Gizarte Lan eskolan dihardu bazterkeriaren aurka. Ekologiatik gizarte lanera egin duen bidean hilea zuritu zaio nafar nekagaitz honi, zorrotasun txintik galtzeke ordea. Pixka bat zaharragoa, apur bat eszeptikoagoa, baina beti bezain kritikoa azaltzen zaigu Gaviria. Ortodoxia ez zen ez Kortesen jaio.

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Zaletuek eta forfoek, bakoitzaren afizioneari dagokienez, badute komunean lotura sendo bat, biok temosoak bait dira aukeratu ahaleginean. Baina, zaletu eta forfoaren artean bada, aldi berean, ageriko diferentziarik, biok nabarmen bereizten dituen. Azal dezagun, bada, azken puntu hau.

Zaletuak, nola bere buruarekiko hala besterekiko lehian, badauki sanoki gozaten bere egitadaz, beronen ondorenak zeintzu izan daitezkeen gehiegi erreparatu gabe. Onak badira, bozkarioz hartuko ditu; txarrak badira, ez du aiseki amore emango eta hurrengo saioaren zain geratuko da egindako okerra zuzentzeko desiraz. Funtsean, zaletua ez da bat ere arrotza, sortzaillea da eta bizitzari kea ateratzen badauki.

Forfoak, aitzitik, 'irabazi ez irabazi' binomioaren antzera jokatzeko du oroz gain, eta gainera, atarramendu positiboa behar du behingoa atera, bere buruarekin kontent egon ahal izateko. Hori lortu ezean, amorrua eta etsipena jabetuko da hartaz. Nahi eta nahi ez, forfoa ez da lehiakide ona. Kirol hutsa baino gehiago den futbol ikuskizunean areagotzen da, ezin bez bez, aipatu gaitza.

Izan ere, forfoen argibiderik onena izan genuen gure inguruan joan den igandeko Osasuna-Zaragoza partidua zela eta. Basatienak, dudarik ez, forfo mañoak izan ziren. Zurrakapotez majo eginda, neo-nazien modura ibili ziren karrketan barrena, batzuri jipoia emanik eta beste tentelkeriak protagonizatu nahian. Eta zinez lortu zutela!... Arratsaldekoa goizekoaren segida baizik ez zen izan baina, oraingo honetan, beste barruti batean gertatua, hots, gisa honetako forfoen santasantorum-nean: Futbol zelaian.

Bien bitartean, etxeko forfoek, 'Indar Gorri' batailokoe, gerrarako janzkera, suziri, bandera eta patxaranez ongi hornituta, muturra erakutsi zieten mañoi, napparrek ere bazekitela mendekatzen maño bati ustez min gehien egiten ahal zaion tokian: «Os vamos a follar/a la Virgen del Pilar» tantra errepikatzean. Heriotz eta amen gaineko erreferentziak aipatzeke utzi ditut apropos, nobedaderik eskeintzen ez duten neurrian.

Partidua amaituta eta, zelaiaz landa suertatu zen azken kontienda, Corcueraren forfoen egur-banaketa animaturik. Ekitaldiaren zati guztiak amaturik zeuden eta hartantxe...

Igande berean, oso bestelako tantrak aireatu zituzten gizarte ez matxistaren aldeko defendatzaileek. Oraingo, forfoak omen dira garaile, baina, makina bat partidu jokatu beharko dira oraindik. Liga hau amaitu ezina da.

Gure Aukerak

MUSIKA



Ahuzki bikoteak, Zaldiko Maldiko taldeak eta Leitzako Izarra bikoteak kantatuko dute bihar, larunbata, arratsaldeko zortzietan bertako Kultur Etxean. Ekitaldia Iratxo Elkartek antolatuko du.

Tapia eta Leturia trikitilariak arituko dira bihar, larunbata, Lizasoko elkarteak, Ultzamako Euskara Zerbitzuak antolatuko duen euskararen astearren barruan. Lehenago, afora izanzen da eta honen ondoren kantaldia eskainiko dute trikitilari famatuak.

Matraka taldeak kontzertua eskeinitako du heldu den ostegunean, hilak 19, Iruñeko Arrano Elkarteak, zortzi terdietatik aurrera. Arturo Kanpion euskaltegiak antolatuta.

MINTZALDIAK



'Argazkigintzaren kondaira argazkigintzaren historiaren kritikarako' izeneko hitzaldia emanen du gaur, ostirala, Francisco Caja argazkilariak. Ekitaldia Nafarroako Museoan izanzen da, arratsaldeko zortzietan.

ERAKUSKETAK



Antoni Tapiesen lana Kribia galerian dago ikusgai. Kataluniako artistaren 15 grabatu eskegita daude galeriaren ormetan, eta beste zazpi aurrerantzean jarriko dituzte. Lanak, berri berriak

ERRAN DUTE



Xabierraldia droga bezalakoa da».

Alfonso Martin
Aurtengo partaidetako

«Hogei urte barru, Hego Amerikan bizi diren bertako talde gehienak desagertuko dira».

German Ameabe
Kazetaria

«Allik deituko digula esaten digu, baina hor gaude».

Jose Angel Perez-Nievas
Nafarroako karlisten presidentea

«Nere bizitzan bilatu dudana aukera da oraingoa, barruan ditudan guztiak joko ditut».

Serafin
Eurovision lehiaketarako aukeratua

Luzaide eta Donibane Garaiz

Igande honetan ez da izanen Luzaiden, inor ez dadila deskuida, bertsolarien txapelketa, hurrengoan baizik. Hala ere, eta hara hurbildu nahi dutenek badute aitzaki franko, Baxenabarrekin mugetan aritzeko eta historikoki Nafarroako historiako zer esan handia izan duen toxoetan ibili eta bisitatzeko.

Luzaidarako bidea ez da makala, Ibañeta portua erdi erdian aurkitzen bait du bisitariak, baina bidean Orreagako kolegiata bisitatzeko merezi du, eta baita Ibañeta gainetik bertatik ateratzen den Ortzanzuriatarako bidea ere. Ikusmira ederra eskeintzen du Txangoa, Astobizkar eta beste hainbeste mendiak.

Luzaiden bost auzo ditu: Gaiñdola, Gainekoleta, Azoleta, Ondarrola eta Pekotxeta, eta azken hau —mugen bitxikeri eta kontraesanak— Nafarroa Beherean dago. Izan ere, Luzaide Nafarroa Beherekin izan zen betidanik lotuta, baina azkenean, Nafarroako erresuma Gazteluko erregeek menderatu zutenean, Luzaide izan



zen Nafarroa Garaian gelditu zen Baxenabarreko zati bakarra. Luzaide, baina, bestaldera dago begira. Bertan, famatuak dira bolanteak, aste sainduan ateratzen direnak, eta bertako biztanle guztiak batzen dituztenak.

Luzaiden aparte, ez da galtzekoa

Donibane Garaziraino joateko aukera, etxe historikoak —nafarren historiak beteta— dastatu eta ikusi ahal izateko. Bere etxeok hamarrietan oraindik ikusgai daude beste garaiko pertsonaien lemak, eta Nafarroako erregeekiko zeuden loturak.

dira, Antoni Tapiesen 1991 eta 1992 urteetan egindakoak, hain zuzen ere.

Carmelo Alcalá argazkilariaren lanak ikusgai daude Tuterako Castel Ruiz Kultur etxean, igan-

dera arte. Erakusketa honetan Herri Kirolen atal desberdinak ikus daitezke: zakulariak, korrikalariak, pilotariak, segalariak, harrijasotzaileak, aizkolariak, zein abarrekiko kirol motak. Ikus-kari hau, Nafarroako Herri Ki-

rolen Federazioaren laguntzaz egindakoa, Tuteratik Azkoien eta Castejonera eramango dute.

ZINEMA



'Hankak Buruan', 'Peccata

ASTEKO PERTSONAIK

Kexux Arzalluz



Bertsolaria

Urolarrak irabazi zuen joan den igandean Donazaharren jokatuak Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehenengo saioa. Duela 14 urte Ipar Euskal Herrira ihesi joan zen errefuxiatuak bere bertsoen mailak gora egin duela erakutsi zuen garbi saioan, eta bere gibeletik, Mixel Aire 'Xal-bador' urepeldarra eta Ernest Alkhat sailkatu ziren. Arzalluzen bilakaera benetan aipagarria izan dela nabarmendu zen Donazaharren, eta saio gehiagotan parte hartzeko aukera izanez gero, bertsolari polita osatuko zuela erakutsi zuen. Froga moduan, bihoa berak igandean botatuko bertso-tako bat: Nere ihesaldia/baita oso latza/Hamalau urte dauzkat/barnean arantza/ Noiz itzuliko naizen/milaka zalantza/Baina noiz-bait joateko/badut esperantza.

Julio Medem



Zinemagilea

Zinemagile donostiarraren Lehendabiziko lana estrenatu zen asteazkenean Iruñeko Golem zinematokietan. 'Vacas' ('Behiak') izeneko, Baztanen ia osoki eginga, bi baserrien arteko gorroto eta haien premuek aizkoararen bidez erakusten duten lehia du argumentu nagusia. Julio Medemek pelikula erakargarri egiten du, kutsu surrealista zenbaitzuekin, baina garbi antzematen zaio ere bere lehendabiziko pelikula dela. Bigarren zatian pelikularen interesak behera egiten du nabarmen, baina, hala eta guztiz ere, gomendatzeko pelikula. Julio Medem Madrilen bizi da gaur egun, eta pelikula joan den udan errodatu zuen Elizondo inguruko bazter zoragarrietan. Euskal zinemak eskeini digun azken produktua, beraz, ikusgai Iruñean.

Miguel Indurain



Txirrindularia

Astarrabiako mutikoteak kezakakuta zituen bere ohizko zaletuak, denboraldi hasita aurreneko postuetan ez zutela ikusten eta. Hala ere, eta ia urteroko ohi-turari eutsiz, Pariz-Niza froga garrantzitsuenean erakutsi ditu berriro ere hatzaparrak Miguelek. Lehendabiziko egunetik bigarren postuan, asteazkenean egin zen taldeakako erlojupekoan lehendabiziko postua eskuratu zuen. Berri hau egiterakoan ez zegoen jakiterik froga jadanik irabazita zuen edo ez, baina azken bi etapak aproposak oso zitzaizkion Banestoko txirrindulariari. Horietan ere maila emanez gero, aurtengo bere lehendabiziko froga irabaziko luke Indurainek. Zaletuak lasaituko dira berriro orduan. Astarrabiakoa indartsu dabil aurtan ere.

Mundi' eta 'Itsasoek bizi nahi dute' euskarazko filmak ikusgai izanzen dira heldu den asteazkenean, hilak 18, Iruñeko Bianako Printzea zinemak. Lehendabiziko biak laburmetraiak dira, 10 minutuko luzerak izango dutenak, eta hirugarrena 85 minutu iraungo ditu. Azkeneko hau itsasoari buruzko dokumentala da, eta itsasoaren edertasuna erakustez gain, gizonen itsasoarekiko gehiegikeriak dakarten arriskua ikusarazi nahi da. Proiekzioak arratsaldeko zortzietan izanzen dira.

BERTSO SAIOAK

AEK Jiraren barruan bertso saioa ikusteko parada izanzen da bihar, larunbata, Iruñeko Labriten pilotalekuan. Mikel Mendizabala, Jon Sarasua, Jon Lopategi, Imanol Lazkano, Manolo Arozen eta Milan Telleria arituko dira kantari, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Ondoren, Parte Zaharreko trikitilariak eta Garbaino Folk taldea izanzen dira.

KIROLA



Eskuz banakako pilota Txapelketak hasiera izanzen du heldu den igandean Iruñeko Labriten arratsaldeko bostetatik aurrera. Patxi Eugi eta Mikel Unanue aurrez aurre, gazteen benetak neurria antzemateko parada ederra, hauek izanzen bait dira askoren irudiko, datozen urteetako 'izarrak'.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan, Malerreka eta Bortzirietaoko informazioa, Elizondo, Berrieta eta Lesaka egunero.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.5

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratisaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 83.5

Asteazkenean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltza** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

AEK Jira, Iruñerrian asteburu honetan

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Atzo hasi zen Iruñeko Gotorlekuan AEK Jira, erakunde honek Euskal Herri osorako prestatu duen ekitaldia. Iruñarekin batera, Agurainen (Araba) eta Basaurin (Bizkaian) ere eman zioten hasiera hiru hilabetetan Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ekitaldiari.

Lau egunetan zehar, ostegunetik igandera, eskualde bakoitzean, AEK-k orain arte egindako lanaren erakusketaz gain, kultur ekintzak izango dira, hala nola hitzaldiak, mahain-guruak, kantaldiak, antzerki emanaldiak, bertsolariak eta herri ekitaldiak.

Iruñerrian, horrela, atzo hasi eta igandea arte, Gotorlekuko 'Polvorinen' izango dira ikusgai AEKren historia laburbilduko duten panelak eta materialeak. Goizeko hamaiketan hasi eta ordubietara, eta arratsaldeko bostetatik bederatzietara, 25 panelatan, erakundearen ekitaldiak, materialeak, funtzionamendua eta abar luzea ikusi ahal izango da. Honekin batera, diapositiba eta bideo emanaldiak izango dira egunero.

Gaurko, zentruetako ekintzak daude iragarrita Iruñerri osoan, antzerkia, bideo emanaldiak eta mahainguru frankorekin. Gabeiko bederatzietan auzotan herri

afaria izango da.

Bihar larunbata, hilak 14, bertso saioa izango da Labrit Pilotalekuan, arratsaldeko 20.00etan hasita. Bertan, Mikel Mendizabal, Jon Sarasua, Jon Lopategi,

tari. Gaijartzailea, Lontxo Aburuza. Ondoren, Parte Zaharreko

taratuak, eta bitartean, Parte Zaharrean zehar, zanpantzarrak eta zankoak arituko dira. Eguerdian dantzak izango dira, eta eguerdiko ordubatean, Folk taldeak jokodu.

Ekitaldi guzti hauetatik aparte, erakusketari berari eman nahi izan diote lehen-tasuna AEK-ko arduradunek. Helburua,

alegia. Honekin batera, AEK sortu zenetik euskararen prozesua ere azalduko du erakusketak, eta Korrika, eta AEK eguna antzeko ekitaldiak ere bai».

Honen atzetik ere euskalduntze-alfabetatze erakundearen proiektua aldarrikatzea da helburu nagusia. «Euskal Autonomi Elkartean hainbat arazo dago



Iruñerrian izan ondotik, asteburuaz asteburu Sakanan, Baztanen, Lizarran, Garesen, Agoitzen, Tafallan, Aezkoan eta Erriberan izango da AEK Jira, tokiz tokiko ekitaldi eta egitarauarekin, baina denetan erakusketak bera izanik.

euskararen inguruan, eta AEKren proiektua ez da onartzen. Jira honen bidez proiektu honen balioa aldarrikatu nahi dugu, beharrezko ikusten bait dugu proiektu hau kaleratzea».

Iruñerriko ekitaldiaren ondotik, Nafarroako beste hainbat leku bisitatuko du AEK Jirak, eta tokiz tokiko ekitaldiak desberdinak izanda ere, erakusketak bera izango da. Horrela, hil honen 19tik 22ra, Sakanan izango da, Altsasuko Gure Etxean. 26tik 29ra arte, Baztanen, eta hurrengo asteburuetan, Lizarra, Gares, Agoitz, Tafalla, Aezkoa eta Erriberan izango da ikusgai.

Imanol Lazkano, Manolo Arozena eta Milan Telleria arituko dira kan-

trikitilariak eta Ganbara Folk Taldea arituko dira bertan.

Igandean, hilak 15, jaialdia izango da Gotorlekuan bertan, goizeko 11.00etatik aurrera. Bertsolari, jotero, txistulari, fanfarre eta gaiteroek jostatuko dute ber-

erakundearen barruan egindako lana ezagutaraztea, Alberto De Lorenzo Iruñerriko arduradunak azaldu duenez. «Erakusketan aurkeztuko dira AEKren argitalpenak, historia, lana eta guzti hori. Lan dozentea ezagutaraztea,

Aezkoako euskarari buruz liburua osatu berri du Josu Cabodevillak

MATTIN KAPITANSORO / IRUÑEA

Azkuetako Nafarroa Behereko zatituta, ondoren egindako ikerketek ere horrela hartu dute aezkera, azpieuskalkiaren maila emanez. Hiriberri eta Abaurregainan bereziki bizirik, gaur egun Nafarroan galtzeko arrisku handienetakoa duen euskalkia dugu hau. Hori dela kausa, egun 400 bat auzotar mintzairaren zenbait ezaugarri bildu du liburu batean Josu Cabodevilla agoizkoak.

Hiru ataletan banatuta —gramatika, eletalde eta San Mateoren ebanjelioa—, bilketa errez eta helgarria eratu du egileak. Hamar urtetako lanaren amaiera, alegia.

Horretarako, argitaratuta zeuden lan guztiak biltzeari ekin zion, Azkueren 'Aezkera-tik' hasita. Bonaparte, Minondo, Mi-

txelenaren lanak, Lekarozko liburutegian aurkitu zituen, eta hortik hasi zen lan guztiari gorpuzka emanez.

Hala ere, eta bere lana zela eta Hiriberri joan zenean hasi zen euskalkia ikasten, berak dioen bezala. «D eta A eredu emateko hasi nintzen benetan aezkera ikasten, eta hiztegia handituz joan zen. Bertan lau urteko lana egin nuen».


Aezkerari eusteko asmoa gauza askok bultzatuta izan zen, baina bereziki hezkuntza alorrean ikusi zuen beharragatik. «Eskolan Ariako hiruzpalau euskaldun zahar nituen, lau urtetakoak eta euskalki oso itxia zuten, haien lotura bakarra euskararekin gurusoak bait ziren. Orduan, oso zaila zitzaion batuari heltzea. Zailtasun horiek bultzatuta, eta baita hiltzearen dagoen euskalkia izateagatik ere, lana-

rekin aurrera egin nuen. Iñaki Caminok asko lagundu dit horretan».

Lehendabiziko atalean, aezkeraren gramatika azaltzen da, egitura, deklinabidea eta aditzaren tratamenduetarekin. Bigarrenean, eletaldea dago, hiztegi modukoa; eta hirugarrenean, egileak berak egin duen San Mateoren ebanjelioaren bertsioa. Horretarako 'Itun Berria' elizaliburua hartu zuen oinarritzat eta baita Olabidearen Idazteuna ere.

ZAHARRENGAN JARRERA ONA

Idazkietatik jasotakoaz gainera, Hiriberri, Abaurregaina eta Ariako aietengandik bildu zituen egileak ele gehienak, eta bertakoen jarrera urte hauetan franko aldatu dela dio, bereziki zaharren artean. «Konpleju asko zeukaten hasieran, eta haiek euskaldunak



Orbaitzeta.

badira, bertze euskaldunei 'vasco' esaten diete. Eskuindarrek egindako politika dela medio, nahiko nahasita dituzte gauzak. Hala ere, aldaketak somatu ditut, bereziki zaharrenean. Politika arazoak baztertu zituztenean, irekiagoak ziren eta gehiago elekatzen zuten. Gazteengan, baina, ez dut horrelakorik ikusi, eta penagarria da. Hor dago AEK, eta jendeak ez dio behar duen erantzuna ematen».

Hala ere, zenbait gertaerak baikor izateko arrazoiak ematen

dituelakoan dago Cabodevillak eta lehendabizikoa eskoletan dagoen jarrera litzateke. «Eskola guztietan, Orbaitzan ezik, D eredu dago, eta poztekoa da, beraz. Orain ere apaiz euskalduna ekarri behar dute Orreagara, bertakendako mezak euskaraz emateko. Zerbait bada. Dena dela, hemendik hamar urtera izanen gara-gai zerbaitetaz elekatzeko, ea zer gertatu den, hil edo bizi».

Horren inguruan, beste lan bat prestatzen ari da orain, erdaldu nek aezkera ikas dezaten.

Aurrerakoien ideiak kon-tserbadoreek erabiliko dituzte agintzeko». Ez dira Gabiriaren hitzak, baina Korteseoak bere egin

ditzake. Berak hitzegin zuen aurrenekoz ekologiaz eta orain, bapatean, boterea eta multinazionalak ere 'berde' egin zaizkigu. Bere etxetik, Gabiriak maltzurki begiratzen ditu San Frantzisko plaza zulatzen ari

diren makinak, «klorofila ideologiaren azken garaipena». Ez du horregatik umorea galtzen. Izan ere, hogeitau urte daramatza aurreratuegia bizitzen. «Beti aurretik eta bakarrik».

Mario Gabiria: aurretik eta bakarrik

ANA UNANUE / IRUNEA

EGUNKARIA.— Hamabost urte aurreratua bizi zarela esan ohi duzu. Ez al da neketsua aurretik, baina bakarrik ibiltzea?

MARIO GABIRIA.— Abangoardiak berezkoa du bakardadea. Zenbaitzuk sentsibilitate berezia dugu aldaketak somatzeko, eta urteak pasa ahala aurrikusitako joerak nabaritzen doaz. Batzuk intuizio femeninoa dela diote, baina ez dut uste dohain hori emakumeen edo gizonezkoen eskusiba denik.

EGUNKARIA.— Eta mugimendu ekologistaren aitzindari izanik, zer sentitzen da agintariek mezu hori bereganatzen dutenean?

GABIRIA.— Berdin diola. Ekologismoak berezitasun hori du: ezin duela irabazi, bere arrakastarik handiena desagertzea da. Zure mezua hedatzen ari dela

ikusteak poz izugarria ematen du, nahiz eta zure lorpenak ixilak izan. Adibidez, inork ez du gogorazten Tuteran zentral nuklearrik ez dagoela ni bezalako jendeari esker. Lorpenak ez dira ikusten,

baina gizarteak beregain hartzen ditu. Nahiago nuke mundu guztia ekologizatuko balitz.

EGUNKARIA.— Baina askotan ekologizatze hori itxurazkoa da, marketing hutsa.

GABIRIA.— Bai, 1965 urtean 'klorofila ideologia' deitzen genion horri. Marxek zioenez, ideologia errealitatearen erreprezentazio faltsua da eta gaur egun hori ikus daiteke. Sekula ez da hainbeste hitzegin ekologiaz, baina botereari bost axola zaio. Begira bestela zer egiten ari diren hemen behean (San Frantzisko plazako aparkalekua). Europako Komunitatea Espainiaz kopeteraino dago, ez, bait ditu ingurugiroari buruzko arauak betetzen. Kultur arazoa da, azken finean. Agintariek euren maila ekonomikoaren pareko kultura izan beharko lukete, baina hemen ez daukate. Ekonomiari dagokionez, Espainiak maila europarra du —estatistikak gezurra dira, Espainiak pobreak egiten du—, baina ingurugiro gaietan politikariak asto samarrak dira. Hemen gai ekologikoak eta sozialak beti izan dira azkenak.

EGUNKARIA.— Euskal Herrian

ekologistek eta abertzaleek maiz bat egin dute. Ze emaitzekin? Eta zer erakutsi du Irurtzun-Andoain autobidearen auziak?

GABIRIA.— Bategitea Lemoizko zentralaren inguruan gertatu zen. Kalera irten zuen jende guztiari esker, eta borroka armatuaren ondorioz, Lemoiz gelditu egin zen. Abertzelek bat egin zuten aurretik zetorren herri mugimendurekin, baina hori izan da euren garaipen bakarra. Bategiteak ondorio txarrak izan ditu gerora, mugimendu ekologistaren kriminalizazioa ekarri bait du. Eta borroka armatua onartzen ez zuen jende asko urrunditu egin da. Autobidearena askoz ere nahasiagoa izan da. Azken zortzi urteotako hazkunde ekonomikoaren sinboloa da; hemen 85. urtean krisiaz hitzeginen zen, baina haizienek izugarritzko dirutza zuten eta hori bankuek bereganatu dute,

Ekologista eta abertzaleen bategiteak ondorio txarrak eduki ditu, talde ekologisten kriminalizazioa ekarri bait du. Eta borroka armatua onartzen ez zuen jende asko urrunditu egin da.


eraikuntza enpresen bitartez. Ekologismoak gorriak ikusten ditu hazkunde urteetan. Jendeak kotxea badiu, autobideak eskatzen ditu. Zentzugabeko borroka izan da, jendeak autobideak nahi dituelako.

EGUNKARIA.— Joko politikoan sartzea huts egitea izan al da?

GABIRIA.— Gauzak horrela etorri dira. Gainera, Estatuak, EAJk eta PSOEek bazterketaren estrategia erabili dute, Alemanian Baader Meinhof talde armatuaren aurka egin zenari jarraiki. Autobidea talde ekologistak eta ETA —portzierto, inork deitu gabe sartu zen—, madarikatzeko aprobetxatu zuten. Autobideak herritarren gustokoak dira, eta horien aurka jarriz gero, ba boterea pozik. Duela bi urte ez nabilela horretan. Esperientziak erakutsi didanez, behin lanak adjutikatuz gero ez dago ezer egiterik. Lemoiz izan da salbuespen bakarra. Galdu egin dugu eta, agian zaharragoa naizelako edo, onartu egin dut Estatua indartsuagoa dela. Ez naiz heroi numantiarra.

EGUNKARIA.— Garai batean borroka ekologikoa klaseen arteko borrokari lotuta ikusten zen. Gaur, berriz, badirudi gizarte aldaketa handiez hitzegiteak beldurra ematen duela.

GABIRIA.— Beldurra ez, baina mundua aldatu egin da. Gizarteak askoz ere zatituta dago, langi-



Zuzenbide eta Soziologia ikasketak ditu Gabiriak.

JOXE

legoaz eta burgesiaz aritzea sinplista da. Gaur egun klaseek ez dute zentzu hori. Borrokak bere horretan segitzen du, baina borroka paktatua da. Langileek ez dute lantokia ixterik nahi, soldata hobeak baizik. Kapitala eta langilegoaren arteko kontraesanak leundu egin dira, langileak explotatzaileen atzetik dabilta eta. Zorionez, sistema sovietarra desagertu egin da. Nazkagarria zen, askatasuna kentzeaz gain, jendea gosez hiltzen zuelako. Leninismoa eta estalinismoa antzekoak dira: beren burua azkartat duten batzuek armak dauzkate eta mundua aldatuko dutela uste dute. Eta mundua tentsioen ondorioz aldatzen da, betidanik izan da horrela. Egun, klase borroka nazioartekoa da, galdetu bestela

marokkoarrei.

EGUNKARIA.— Askotan salatu izan duzu 'lanaren etika'. Zein da benetako arazoa: lana ala langabezia?

GABIRIA.— Lana bera da arazoa. 60ko hamarkadan uste genuen teknikak jendea askatu egingo zuela, lan gutxiago egingo genuela eta bizitzaz gozatzeko parada izango genuela. Baina, bizitzaren misterioak medio, lanordeak ez dituzte gutxitzen eta jendea estresatuta dabil. Dagoeneko oso gutxi planteatzen dute bizi-modu alternatiboa. Hiriak nagusitu dira eta laster hiriak besterik ez dira egongo, aireportuekin, eta ingurua erreserba izango da, as-teburuetan joateko.

EGUNKARIA.— Duela urte batzuk iraultza Euskal Herrian jai-

ko zelako esperantza zenuen. Orain berriz, Eusko Jaurlaritzaren azken kanpainaren arabera, exekutibo bat da 'euskal lehengai'. Zer gertatu da? Abertzaletasunak izan du honekin zerikusirik?

GABIRIA.— Euskadik izugarriko kultur erresistentzia du. Mendialdeko etnien ezaugarriak dauzka. Horrelako lekuetan dena beranduago sartzen da, baina indar handiz sustraitzen da. Kristautasuna berandu heldu zen Euskadira, baina Jesusen Konpainia hemen sortu zen —zer arraio egiten zuen Xabierreko San Frantziskok duela 500 urte japoniarrek bataiatzen? —. Abertzaletasunarekin berdin gertatu da. Modernitateari eta industrializazioari aurre egiteko

jajo zen, erresistentzia gisa, baino horretan ere beste muturreraino joan ziren euskaldunak. Euskal kapitalismoa izan da eraginkorrena eta industrializazio basati-ena egin duena. Sabino Arana-ren —tipo arrazista zen— irudi bukolikoak, euskalduna base-rrian eta guzti horrek, ez du arrakastarik izan berriz.

EGUNKARIA.— Behin esan zenuenez, euskaldunak ez dira behar bezain biolentoak izan.

GABIRIA.— Garai batean, behar zutenean, ez. Ameriketako konkista garaian Espainiaren beso armatua izan ziren. Euskadik populazioa galdu zuen orduan. Ihesa izan zen azken finean, jatekorik ez zutelako. Lope de Agirre, Pedro de Ursua eta horiek urte bila joan ziren, urrea eta aluak nahi zituzten, erreprimituak zeuden eta. Euskaldunek ez zuten Estatu indartsurik edota dirurik eta espainolen aurrean ez zuten defendatzeko modurik izan, Portugalek egin zuen modura. Estatuak eratu dituztenak izan dira herririk biolentoenak. Begira bestela Europarantz: Euskadi irla ez biolento bakarra izan da, eta garapena eta dirua beranduegi iritsi dira. Borroka armatua sortu da, baina ez da emankorra izan. Euskaldunen etika, nire irudiko, ez da indarkeriarena. Ikusi ahal izan dugunez, Estatu propioa lortzeko borroka armatura jo dutenean euskaldun gehienek ez dute onartu.

EGUNKARIA.— Nafarroa bi etnia ezberdinekin aberatsagoa izango zela uste zenuen, baina azken urteotan 'napartheidaz' hitzegiten da.

GABIRIA.— Bi etnia eta hiru hizkuntza aldarrikatzen nituen nik. Historiak eta bi estatuk banandu dute jende hau eta komunitate bateratu gisa aurrera egiteko horiek izango lirakeke oinarriak: bi etnia eta hiru hizkuntza. Gizarte errealtate bat dugu eta ezin da



«Euskal kapitalismoa eraginkorrena eta basati-ena izan da». JOXE

ezer inposatu. Historiak ekarriko ditu elkar ulertzeko modu berriak. Gauzak horrela gertatu badira, izango dute euren arrazoia. Ezin da pentsatu norbaiz egia dutela, hori jesuiten ideia da. Norbera den bezalakoa da eta, izaera bat inposatzen ba zaio, bortizki erreakzionatzen du. Dena dela, une polita bizi dugu:

Urralbururi deabruarena egitea suertatu zitzaion eta agian Alliri dago gokia bakea egitea. Elkarbizitzak dakartzan arazoan aurrean jokaera berria erakutsi du. Eta horrelako pertsonak testuinguru historikoak eskatzen

dituenean azaltzen dira.

EGUNKARIA.— Nekazaritzaz...

GABIRIA.— Deus, ez dago deus egiterik. Nafarroako nekazaritzak izugarritzako afreakasta izan du eta hori izan da bere hondamena. Sekula baino gehiago ekoizten da, baina jende gutxiagorekin. Nekazaria pertsonai bitxi bihurtu da, traktoreak eta zorrak dituen norbait. Erriberan lehen pentsaezina zena gertatu da: jendeak ez ditu lur kolektiboak nahi, irri-gatutako lurak ez dituzte nahi,

ezta dohain ere. Ez dituzte landuko, edota multinazionalak hartuko dituzte. Nekazari nafarra marokkiarrak edota andaluzak ordezkatuko du.

EGUNKARIA.— Zertarako behar dituzte orduan Nafarroako Ubi-dea eta Itoizko urtegia?

GABIRIA.— Ezertarako. Europako Elkararteak lurak ez lantzeagatik ordaindu egingo du. Dagoeneko lurak utzi eta makalak landatzeagatik ordaintzen ari dira. Itoizko estrategia hori da: papelera bat jarri eta inguruan, ureztatutako lurretan, makalak. Izugarritzako astakeria da, ur onena zelulosa ekoizteko erabiliko dute.

EGUNKARIA.— Lurak uzteagatik ordaindu egingo dutela diozu. Baina, bestalde, European dagoeneko ikusi dute nekazariak behar direla ingurugiroa babes-teko.

GABIRIA.— Europako Nekazaritza Politika produktibista izan da eta EAEn eta Nafarroan hortik joan dira. Kapitalismoak kontraesan hori dauka: hain efikaza da, krisia dakarrela. Orain elikagaiak soberan daude eta nekazari kopurua murriztu behar da. Gutxi batzuk produzitzeko geldituko dira eta gainerakoak paisaia zaintzen. Errokarin hori gertatu da

dagoeneko, gazteak turismoari begira daude. Eta ez dago beste bederik: Europa oso biolentoa da eta dagoeneko jarri ditu bere mugak.

EGUNKARIA.— Azken urteotan gizarte lanetan murgildurik zabilta.

GABIRIA.— Duela zortzi bat urte ikusi nuen ekologiaren informazio franko zegoela eta aspertuta nengoen, beti errepikatuz. Ohartu nintzen kapitalismoa langilegoa integratzeko gai izan dela, baina populazioaren ehuneko bat eta bi kanpoan gelditzen zela.

EGUNKARIA.— Eta Nafarroan? Ba al da ghettorik?

GABIRIA.— Gutxi, ehuneko bat baino gutxiago. Bilbo aldean izorratuagoak daude. Araba eta Gasteiz bereziki, aldiz, eredu honak dira gizarte zerbitzuetan, Estatuako onenak. Nafarroan 2.500 lagun inguru daude guztiz baztertuta. Eta hain arrazistak gara, Nafarroako Gobernua lehena, ez degula ezer egiten. 400 portugaldar daude, hogeitaz jadanik. Lehen inmorala zen ezer ez egitea, baina orain lege kontua da. Portugaldarrak europarrak dira eta Nafarroako Gobernua salatu dezakegu, ez bait du Akta Bakarrak agintzen duena betetzen. Ea gauzak aldatzen diren: hasiera ez da txarra izan. Aurrenekoz, Nafarroako lehendakaria eta kontseilari bat Tuterako ijitoekin izan dira. Nafarroako ijitoek une historikoa bizi dute; Nafarroako zenbait lekutan (Ribaforada, Kortés) Espainiako ijito zorian-tsuenak daude. Beste batzutan berriz, arrazismoa pairatzen dute, Lodosa eta Zangozan kasu. Gero badaude zaharrak eta gazte kol-gatuak, gartzelatik gaizki irten duen jendea ere. Baina Nafarroan preso gutxi dago. Gartzela berria egitea erru bat da, Kode berria-

rekin Nafarroan ez luke presorik egon behar ia. Gizarte modernoan iraultza ez bada posible, eta langileak integratuta badaude, hori da erronka: gelditzen diren bakarrak integratzea.

EGUNKARIA.— Eta etxebizitza? Nafarroako Gobernua oso harro dago Mendillorriekin.

GABIRIA.— Mendillorri ez dute behartsuentzat egin, milioi bateko diru sarrerak eskatzen dira eta. Bi jende multzok dituzte etxebizitza lortzeko arazo larrienak: lehen aipatutako baztertuek eta

Euskaldunak bere garaian ez ziren behar bezain biolento izan. Herri biolentoek bakarrik eratu dituzte Estatuak. Hemen borroka armatua beranduegi jaio da eta ez da emankorra izan. Euskaldunen etika ez da indarkeriarena.

gazteek. 18-30 urteko gazteek ez zuten lanik 85ean eta ezin zuten etxe bat erosi. Orain lana dute —gizonezkoek behintzat ez dute lan arazorik gaur; langabeziaren datuak faltsuak dira—, baina etxebizitzak garestiegiak dira.

Gazte horiek, populazioaren ehuneko zortziak, ordaindu dute etxebizitzaren gainbalorazioa.

EGUNKARIA.— Zer diozu? Langabeziari buruzko datuak faltsuak direla?

GABIRIA.— Denak faltsuak. Nafarroako zenbait zonaldeetan, sei hilabetez behintzat, mundu guztiak du lana. Horregatik etortzen dira marokkiarrak eta andaluzak. Estatistikak gaizki egiten dira, baina inori ez zaio axola. Langabezia dagoela diotela, ba enpresariak gustora: horrela gehiago estutuko dituzte langileak. Eta sindikatuak berdin; oso gustokoa dute langabeziarena, langileak sindikatu egiten dira eta borrokarako prest azaltzen bait dira. Langabeziak bi biktima ditu: emakumeak —horiek arazo gehiago dituzte— eta prestakuntzarik gabeko jendea —Unibertsitatea ez da langabetu fabrika, esan ohi denez. Beste mito bat—. Besteek ez daukate arazorik, baina hemen funtzionari ez dena langabetutzat dauka jendeak.

HITZ BITAN

EGUNKARIA.— Demokrazia analgesikoa al da?

GABIRIA.— Demokrazia asmatu den onena da, benetakoa izanez gero.

E.— Urralbururekin hobeto bizi al ginen?

G.— Hazkunde handiko garaia izan zen, baina tentsioak areagotu egin ziren, abertzaleen bazterketaren ondorioz.

E.— UPNrik ez izanez gero, sortu egin beharko genuke?

G.— Funtzio positiboa izan du, Fuerza Nueva eta eskuindar biolentoenak ixildu ditu eta. Bizitza ulertzeko modu ezberdinak biltzen ditu.

E.— HB osasunarentzat kaltegarria al da?

G.— Ez. Ez da homogenea eta metamorfosi betean dago. Ea borroka armatuaren aurka daude-

nak ausartzen diren.

E.— Txirrinduaren erotika mountain-bikearekin bukatu al da?

G.— Mountain-bidea teknologia onaren aplikazioa da, baina erotismoa kontsumismo bihurtu du.

E.— Colombian behartsuak 'desechables' dira. Eta hemen?

G.— Berreskuratu daitezke.

E.— Europako Komunitatea pekatua al da?

G.— Inperialista da, ekologia eta etnien hiltzaile.

E.— Hipermerkatua nagusituko da Nafarroan?


G.— Katedrale berria da. Horregatik itxi dute zaharra.

E.— Zer da ezinbestekoa?

G.— Maitasuna.

E.— Eta Escrivá de Balaguer beatifikatzen badute...

G.— Jainkoak gorde dezala.



Duela hogeitaz urte hasi zen Tuterako zentralaren aurka lanean.

GAZTEENDAKO ZOKOA

Enara arrunta

Hirundo rustica
Txofrakiak lokatzaz egiten ditu
Gutxitan pausatzen da
Gizakiengandik gertu bizi da



Igeltsero fina

Txofrakiak prestatzen paratzen duen arretagatik —igeltseroen antzerakoa— da ezaguna oso, enara eta baita herri gehienentzat frankotan ikus daitekeelako ere. Beren mokoetan buztina edo lokatza hartzen dute, eta teilatupean edota hormen arrailetan paratzen dute, beti euriaren babesean. Txofraki bitxi honi kopa baten itxura ematen diote eta lokatza lehortzen denean lastoz betetzen dute, toki bero eta goxoa izan dadin.

Enarak, betidanik, gizakiengandik gertu bizitzeko joera izan du, eta udaberri aldera bere etorrerak zorte ona iragartzen zuelakoan zeuden aintzinakoak.

Hegaldian trebea oso, etengabe ari da bueltaka etxe, soro eta ibai inguruetan, intsektu bila. Airean bertan harrapatu eta jan egiten ditu, oso altura txikian, normalean. Oso gutxitan pausatzen da, eta egitekotan argindar sare, etxe edo zuhaitzetan, oso bakanetan. Lurrean, soilik lokatza hartzeko pausatzen da.

MAIDER ESEBERRI

Deskribatuko dudan herriak Otsagi du izena. Nafarroako ipar-ekialdean dago, Iruñetik 85 kilometrotara. Zaraitzu ibarreko herri handiena da eta Ezkaroze eta Itzaltzu herrien artean dago.

Abodi eta Ori mendiek inguratzen dute herria eta hemendik nahiko hurbil, pagoz beteta, Irati basoa aurki dezakegu. Baso honetan animalia asko daude: basurdeak, oreinak, azeriak... Irati, Urtxuri eta Urbeltz ibaiek zeharkatzen dute. Baita ere, basoan bertan, baseliza bat dago, Elurretako Ama Birjina izenekoa.

Herriarekin segituz, populazioari buruz mintzatuko naiz. Biztanleak gero eta gutxiago dira. Orain bostehun biztanle inguru izango ditu, gehienak zaharrrak.

Jende gaztea lanpostuen bila Iruñera edo beste toki batzuetara joaten da, herrian ez bait dago lanpostu nahikorik. Batzuk soroetan egiten dute lana patatak eraiten eta ardiak zaintzen, eta beste batzuk zurginak, elektrikariak, igeltseroak... dira.

Herrian bertan sofa lantegi bat dago eta baita bankuak, dendak, harategiak... ere. Emakume gehienak etxeko lanetan aritzen dira, eta umeak eskolara joaten dira. Otsagiko eskolara ibarreko zenbait herrietako umeak etortzen dira.

Herri honetako kale guztiak harriz eginda daude, etxeak bezala, eta hauen sarreretan harriz egindako marrazki batzuk bereizten dira: lauburuak, loreak... Etxea barrukaldetik egurrezkoa da, eta baita eskailerak, barandak, eta abar.

Otsagi bost auzotan banatuta dago. Labaria, Irigoien, Iribarren, Urrutia eta Auzo Berria. Herriaren erditik Anduñia ibaia pasatzen da, eta atzekaldetik Zatoia. Gero bi ibai horiek Zaraitzu ibaia sortuko dute.

Anduñia ibaia lau zubik zehar-

Otsagi herria



katzen dute. Horietariko bat harrizkoa da, eta bakarrik jendea pasa daiteke. Herritik kilometro erdira edo, igerileku bat dago. Ibaian oholtzar batzuk jarriz ura gordetzen da eta igerileku antzeko bat sortzen da.

Otsagitik lau kilometrorara saildutegi bat dago, Muskilda izenekoa, mendi baten gailurrean. Hona urtero irailaren 8an igotzen da erromerian, eta dantzariak dantza egiten dute. Beste egun berezi batzutan ere mezak

ospatzen dira bertan.

Baina saildutegi hau nahiko txikia da, herriko eliza baino askoz txikiagoa. Herrikoa XVI mendean berreraikia izan zen eta erretaula handi bat dauka.

Hemengo festak irailaren 7an hasi eta 11n bukatzen dira. Bezpera eta lehenengo eguna politenak dira herriko dantzariak saio bat egiten dutelako. Goizean Muskilda saildutegian eta arratsaldean herriko enparantzan. Eta horretaz aparte betiko gauzak

egoten dira: herri kirolak, dantzaldia, umeen eguna...

Herri hau urte osoan zehar turismo handiko lekua da. Negan Abodi mendizerran eskia daiteke eta arrantza garaian amurruak izaten dira. Ehiza garaian ere oreinak eta basurdeak harrapa daitezke.

Baita ere mendizale asko etortzen dira. Gainera aurten kanpina eraiki dute herritik kilometro erdira eta honek jende asko erakartzen du.

KAZKARROAN

Intsumisioa

Gartzelan preso dagoen intsumisioari botatako bertsoak

Mutiko honek jasan duena zoritxarrez orain arte soldaduskaren kontra dago ta juizioa egin diote bere ondoan dauzka beti bi komandante, bi putre insumisioa egin da eta gartzelara sartu dute

Ama negarrez dago etxean bere lagunak bezala juizioa egin baino lehen zigorra izanda kartzelara badakigu ez dela hori inorentzako hotela horregatik eskatzen dugu azkar aska dezatela.

Zaldiko Maldiko

Zaharrak berri

Fite erre ditik horrek paperak!
Agutlo aspertu da eta lagunak edo lana utzi du.

Luzaide
Eguzkia kirikaka dabil.
Hodei tartean agertu ez agertu. Ituren.

Nagusia langileari:
—Orain, haseran, egunean mila pezeta irabaziko duzu eta geroago mila eta bostehunera igoko dizut soldata.
—Orduan geroago etorriko naiz.

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER-ESKUIA: 1.- Landare lekadun. Elez edo hitzez baina ozenki. 2.- Bizarra duena. 3.- Errainu. Asiako estatua. 4.- Ate, hitz elkarketan. Bizkaieraz, atera. 5.- Oxigenoa. Egunaren atal. Tona. 6.- Zango atala. Bizkaieraz, bezala. 7.- Zubereraz, hiru. Arazo. 8.- Hileta-oroitgarri biribil eta harrizko. 9.- Ukapena. Makila, haga.

GOITIK-BEHERA: 1.- Bidea. Garrasi. 2.- Pluralean, intsektu mota. 3.- Iparraldean, zurezko oinetako. Gorputz-azaleko zuloa. 4.- Italiako telebista. Sorra. 5.- Kontsonantea. Argentinakotalde parafaxista. Bokala. 6.- Entzun. Erakunde abertzalea. 7.- Hangoa. Gauzak handiago ikusteko tresna. 8.- Ezin onartuzko. 9.- Mendebaldean, zegoena. Zilborra.

Nafarroako gobernuak 1988an onartutako egitasmo orokorraren arabera, bertako ibai gehien kutsadura, 1995rako ia ezabatuta izango da. Horretarako, isurke-

tak murriztea da helburu nagusia, eta arazgailuek zer esan franko dute horretan. Joan den igandean, baina, arrantzaleek Urederra ibaiak duen egoera penagarria salatzen zuten kontzentrazio baten bidez, eta Nafarroako

ibai askoren egoera ere espero baina dezente kaskarragoa zela adierazi zuten. Herenegun bertan bildu zen arrantzaleen presidentea gobernuaren ordezkariekin, eta plangintza ahal bezain azkar martxan jartzea eskatu zuten.

Arrantzaleak, ibaien egoeraz kexu

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Joan den igandean berrehun bat arrantzale, Nafarroako Arrantza Federazioak deituta, Urederra ibaiaren inguruan bildu ziren Barindanon. Araban jaiotzen den ibaiak, amurraina eta beste espezien arrantzarako tradizio handia izanda ere, egun duen egoera penagarria nabarmendu zuten arrantzaleek, eta arduraren Barindanon bertan dagoen arrain-haztegiari leporatu zioten. Hain zuzen ere, protestak Lizarrako Arrantzaleen Elkarteak bi biologoiei eskatutako azterketan du jatorria, bertan garbi azaltzen bait da arrain-haztegiak ibaiaren kutsaduran duen eragina.

Azterketaren arabera, haztegiaren ondotik, uraren kalitate maila nabarmen askoa jeisten da, batez ere nitrogeno eta fosforo kopuru handien kariatz. Hauek herrietako isurkinek eta haztegiak berak duen erabilpena kaskarrak dira sortuak. Izan ere, azaleko urek ez dute garbiketarik izaten, eta noizbehinkako isurketak ere ugariak dira.

Jose Maria Garcia Rivera, Nafarroako Arrantza Federazioaren presidentea, adierazten duenez, arazoa ez da bakarrik Urederra ibaiarena, baizik eta Nafarroa

koa da, Esako arrain-haztegia dela eta. «Horko arazoa Urederra-



rena baina sei aldiz handiagoa da, eta hor hiru Aratzuri beharko lirakeke».

Ibaien egoerari buruz Nafarroako Gobernuak kaleratutako txostenak azaltzen duenez, ipa-

rraldeko hiri gehienek, Arakil kenduta, amurrainarako baldintza egokiak dituzte. Hau, baina, nahiko urrun dago errealitatearekin, zenbait arazo direla eta. «Toki askotan —dio Garcia Rive-

rak— eta horretarako egokiak izanda ere, amurraina desagertu da, gobernuaren proiektuan aurrikusita dauden zenbait arazgailu eta zentru oraindik ez direlako martxan jarri. Isurkinek hondatu egin dute, eta aurtengo lehorteak areagotu egin du egoera larria». Urederraz aparte, Zaraitzu ibarrak ere arazo franko

ditu, eta Iratin lehortea egiten ari da kalte handiena, bertan dauden zentral hidroelektrikoak direla eta. Beste zenbait ibai —Urrobi, Artius, Bidasoa, Ubagua— garbiketarako plangintza martxan jarri zain daude oraindik.

Hala ere, arazorik handienak hiri eta herrietatik botatutako isurkinatik datozela dio arrantzaleen presidentea, «eta batez ere arrain haztegien isurkinetatik ere. Horretarako baimenak eman zituztenean, ez zuten kontutan hartu ondorioak, eta industri hauek ez dira hauetaz ezertxo ere kezkatu. Gu ez gaude enpresa hauen aurka, inondik inora, baina bai beren axolagabekeriaren aurka. Soilik produkzioa gainditzeari erreparatu diote, eta ez dira batera kezkatu garbiketaz».

Herenegun, Nafarroako gobernuaren ingurugiro eta arrantza arduradunekin bildu zen arrantzaleen presidentea, gai guzti hauetaz mintzatzeko. «Asko dugu eskutartean, ibaiak zeharo hondatu dezakegu eta».

osokoa. Urederra hartzeko atzakia Lizarrako elkarteak berak salatutakoa zelako izan zen, «baina beste toki askotan arazoa askoz handiagoa da. Gertatzen dena zera da, ibai horren inguruan, akaso, ez dagoela elkartarik, baina arazoa gordina da ibai askotan».

Bere esanetan, Aragon ibaiaren egoera, kasu, arras kezkatze-

Sei urte barru poluzioa % 88 jaitsiko da Gobernuaren arabera

A.B. / IRUNEA

Nafarroako Gobernuak 1988ko abenduaren 29an onartu zuen Ibaien Garbiketarako Egitasmo Orokorra, i.e. eguneratu zuena. Egitasmo honen zehazten zen ibaiak behar zuten ingurugiro kalitate maila, eta aurrera eramateko elkarte publikoa osatu zen: Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA).

Egitasmo honen ardatzak depuradorak dira. Nafarroa osoan egindako sarearen bidez ibaietara isurtzen diren hondakinak tratamendu eta analisisa egiten da, eta zenbait ibaitan hobekuntzak nabariak dira, hala nola, Arga ibaian bertan.

Egun, hamabost depuradora daude martxan Nafarroa osoan, zortzi ibaien isurpenak kontrolatzen dituztenak: Zubieta, Etxalar eta Lesakakoak, Bidasoa ibaian; Zugarramurdikoa, Nivelle ibaian; Irurtzungoa, Arakil ibaian; Iruñea eta Larragakoak, Arga ibaian; Agoizkoa, Iratin; Tafalla-Erriberrikoa, Zidakos ibaian; Alesbeskoa, Aragon ibaian; eta Ablitas eta Cascante-koak, Queiles ibaian.

Egitasmo guzti honen barruan

beste hainbat depuradora dago aurrikusita, eta NILSAren txostenaren arabera, arazorik izan ezean, 1998rako, poluzioa % 88,7 jaitsi ahal izango da.

Egoeraren analisi zehatza egitearren, zenbait neurriekin egiten da lan arlo honetan. Horrela, 100-80ko bitartekoak ibaien kalitatea oso ona dela adierazten du; 80-60ko bitartekoak, onak; 60-40koak, ez onartzekoak; eta 40tik beherakoak, oso txarra. Barentzen hauen arabera, ibai baten ura arrantzarako egokia edo desagokia izan daiteke, eta egokia izanez gero, izan ditzakeen espezie desberdinen arabera ere sailkatzen da ura.

BI BIOTOPO NAGUSIAK

Horren arabera, bi biotopo nagusiak bereizi daitezke Nafarroako ibaietan: salmonidoen zona eta ziprinidoena. Hau da, ibai garbiak, edota ez hain garbiak. Lehendabizikoa, mendialdeko ibaien urak kokatzen dira. Horieta, ibaiak korrante bortitzak ditu zati garrietan, eta maldak mileko 4etik gorakoak izaten dira. Bertan sailkatzen dira Eska ibaiak, Burgiraino; Aragon, Zangozaraino; Zaraitzu, Iratiraino; Irati, Agoitzaraino; Urrobi

ibaiak; Arga, Uharteraino; Ultzama, Soraureneraino; Larraun, Arakilekin uztarteraino; Urederra, Argaraino, eta Ega, Alloraino.

Bertan amurrainarako baldintza guztiak betetzen dira, eta urak garbi eta gardenak izaten dira, oxigeno portzentaia handiarekin. Amurrainarekin batera txipa eta mazkarrak aurki daitezke. Beherago, barboak, eta, zenbait lekutan, izokinak ere bizi dira.

Bigarren motako ibaiak normalean haranetan izaten dira. Hartzen duten zona zabala da oso, eta batez ere Nafarroako erdialdean izaten dira. Ura ez da hain garbia, eta berdexka ere izan ohi da zenbait lekutan, dagoen plankton dela eta. Oxigeno kopuruak ere oso aldakorak izaten dira, eta poluzio nabarmena egiten da toki frankotan. Barboa oso arrunta da eta amurraina eta txipak ia ez dira azaltzen, Aragon ibaiaren zenbait tokitan izan ezik.

Nafarroako egitasmoaren arabera, Iparraldeko hiri gehienak, Arakil eta Arga kenduta, salmonidoendako aproposa egitea da helburua. Hegoaldeko beste zati eta ibai guztiak ziprinidoendako utziko lirakeke.



I bai arbi eta ibai zikinn antzeko klasifikapena da ondoko mapan ikus daitekeena. Nafarroako gobernuak egindako plangintza orokorraren arabera, salmonidoendako aproposa izeneko maila duten ibaietan amurraina eta antzeko espezieak dira bertan aurkitzen direnak. Ibai garbi eta gardenak, alegia. Besteetan, ziprinidoendako aproposetan, barbo eta antzeko espezieak dira lortu beharrekoak, hau da, uren kalitate maila ez da besteen adinakoa izango. Plangintza hau 1995rako dago asmatuta.

Juan
Ornoz

Leitzako alkatea

«Kritikak egitea oso merkea da»

IZASKUN IBARRA / LEITZA

EGUNKARIA.— Azkenadian kritika asko jasotzen ari zara erabakiak inori galdetu gabe hartzen dituzula eta.

JUAN ORNOZ.— Hori ez da horrela izan. Kritikak egitea oso merkea da oposizioarentzat eta bere paperean dago.

EGUNKARIA.— Baina ez da oposizioa bakarrik izan, zure taldeko batzuk ere ados daude kritika horiekin.

ORNOZ.— Batzuk esaterik ez dago. Gure taldeko bat izan da, Barberia hain zuzen. Orain arte berarekin ongi konpondu izan naiz, eta akusazioa egin aurretik ezereko konfrontaziorik ez dugu izan. Mutil honi gertatzen zaiona zera da, bere anaia Larraungo alkatea daukala eta hau Lekunberriko alkatearekin erabat enfrontaturik bizi da. Orduan bere anaia asko eragin dio.

EGUNKARIA.— Zer da leporatzen dizuna?

ORNOZ.— Aitzakia bezala jarriz zuten nik Erasoteko harrobia defendatzen nuela, berak jarrera hori ez bait zuten ontzat hartzen. Harrobiaren jabeak handitu egin nahi zuten lantegia eta horretarako beste sozio batzuekin sartu dira. Logikoa den bezala adjudikazioa eskatu, zutenean Udalak aho batez eman zion, handitze

hori baikor ikusten bait genuen denok. Inbertsio eta lanpostu batzuk egitera heldu zen eta gure baimena izan zuen. Barberiaren kexa da hortaz ez zuela deus jakin, eta nik pertsonalki eman nio-la baimen hori. Nik akordioaren fotokopiak ekarri nizkion gero, baita eragindakoei egin zituzten alegazioak ere. Handik egun gutxi barru gainera, Diputazioak kendu egin zion baimena eragozpen batzuk ikusten zizkiolako. Argumenturik gabe gelditu zen orduan. Alderdian nere dimisioa eskatu zuten, eta azkenean alderdiak era-

A Iderdian nere dimisioa eskatu zuten Jose Luis Barberiak, eta azkenean alderdiak erabaki zuten bere jarrera zuzentzen ez bazuen, berak dimititzea hobe zela. Ez da zatiketarik, ez deus, bera bakarrik izan da

baki zuten bere jarrera zuzentzen ez bazuen, berak dimititzea hobe zela. Ez da zatiketarik, ez deus, bera bakarrik izan da. Neretzat pena bat izan da horrenbeste urtetan elkarrekin lanean ibili ondoren, bere anaia influentziaz hala itsututa jartzea.

EGUNKARIA.— Zentsura mozioa aurkezten badute...

ORNOZ.— Hori eginahaletan badabil. Horixe da kezkarik ematen ez didan gauza. Beste norbait ikusten badu nere ordezkari eraman dezakeela alkatetza eta lan gehiego egin dezakeela, aurrera egin behar da. Baina, beti ere, plantaturiko arrazoiekin ez dauka inora joaterik. Mozio bat

Leitzako herrian polemika berria sortu da azken asteotan. Eusko Alkartasunako parlamentari eta duela bost urte Leitzako alkatea den Juan Ornozok kritika gogorak jaso ditu informazioa ez emategatik eta erabakiak inori galdetu gabe hartzeaga-

tik. Bere taldeko zinegotzi batek —Jose Luis Barberia— bere alkatearen «gehiegikeriak» salatu ditu, baita bere dimisioa eskatu ere. Hori dela eta, zentsura mozioa aurkeztekotan dabilta udal-etxean. Gu auziaren protagonista-rekin mintzatu gara bere iritzia jasotzeko eta Leitzako gaur egungo egoera ezagutzeko.



Juan Ornoz.

JOXE

aurkezteko gehiengo behar da, eta noski, horretarako ez dute Barberiaren beharrik. Guregatik oso librea da Barberia, nahi duenak hartu bere taldean, hartzen ahal du lasai, zeren gure taldean sobran dago jokaera horiek egin ondoren.

EGUNKARIA.— Orduan autobiodearen auzia salaketan presiopean dagoela uste duzu?

ORNOZ.— Bai, batez ere anaia Aierdirekin duen liskarra. Bere anaia beleta baten jokoa egiten ari da. Bere egunean Nafarroako eta Gipuzkoako Diputazioek autobiodearen trazaketa onartu zutenean bera parlamentaria zela, Barberiak sostengatu egin zuten proiektu ofiziala. Gero alkate bezala aurkeztu zen eta

bere interesak izanzen ditu iritziz aldatzeko, orain edozein alternatiba gehiago gustatzen bait zaio ofiziala baino. Igoal da munduen txarrena bada ere. Bere jokua hortik darama eta bere jokuekin batera anaia eraman du baita ere.

EGUNKARIA.— Zeintzuk dira gaur egun Leitzak dituen proiektu garrantzitsuenak?

ORNOZ.— Larren hobekuntzak egiten ari gara. Iaz lehendabiziko fasea bukatu genuen eta 75 hektarea belatso bihurtu genituen. Aurten proiektu berakin jarraitzen dugu. Basoak baso bihurtu nahi ditugu, oihanak oihan eta larreak lar, orain arte dena nahasi xamar joaten bait zen. Askotan basotako zeuden

mendietan hazienda asko ibiltzen zen, eta heldu zen landare berri guziaz hondatu egiten zuten. Bestalde trabesiako proiektua atzera bota nahian dabilta Diputazioan diru murrizketak direla eta. Pabimentazioa, ur ekarria eta saneamenduko bigarren faseari ekinen diogu aurten baita ere.

EGUNKARIA.— Eta polikiroldegia noiz eraiki behar duzue?

ORNOZ.— Polikiroldegia lanei ere iaz ekin nahi genion, baina presupuestoetan sartu gabe geratu zen, eskolako guraso batzuek eta Udalak akordio batera iristerik izan ez zutelako. Polikiroldegia egiteko piztinatoko ondoko lurra erosita zeuden. Zenbait gurasok esan zuten eskola barrenean egin behar zela eta hara distantzia handia zegoela. Egia esan, pauso normal batean bi minututan ailegatzeko zara. Aitzakia hori izan zen eta planetik kanpora gelditu zen. Orain Leader planean sartzekotan gaude.

EGUNKARIA.— Leitzaz zorretan sartuta dago azken honetan. Nondik atera behar duzue dirua proiektu hauei aurre egiteko?

ORNOZ.— 110 milioiko zorra dugu eta 10 urtetan pagatu behar dugu. Hala ere, ez da hainbestekoa. Proporzionalki duela hamar urte zor bera genuen eta azkeneko urteotan mila milioiko lanak egin ditugu. Proiektuak aurrera eramateko Diputazioak udalei ematen dion dirua dugu eta aipatu Leader proiektua. Hauetaz gain, alferrik dagoen patrimonioa saldu egin behar dugu, eskoletako bizi etxeak eta mataderia adibidez.

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

